

# Aspergerra: sentsibilizazio saioa

**Autor:** Rodríguez León, Janire (Licenciado en Filología Vasca, Profesor de Euskara en Educación Secundaria).

**Público:** Profesores de ESO. **Materia:** Tutoría. **Idioma:** Euskera.

**Título:** Aspergerra: sentsibilizazio saioa.

## Resumen

Asperger Sindromea duten pertsonen arazoak dituzte gizarte elkarreraginean eta gizartean komunikatzeko orduan, eta ez dute pentsamendu-mailako malgutasunik gerta daiteke irudimen pobrea izatea, interesak oso biziak edo mugatuak, eta ohiturekiko atxikipen izugarria. Diagnostiko bat landu ahal izateko, arlo bakoitzean (oinarrizko hiru zailtasunak izenez ezagutzen ditugunak), minusbaliotasun-mota eta minusbaliotasun-maila desberdinak bereizi behar dira. Hori esan ondoren, argi eta garbi ulertu behar da gaixok bizi ditzaketen zailtasunen larritasuna, eta zailtasunek duten agerpena desberdina izan daitekeela. Horrez gain, gogoan izan behar dugu, Asperger Sindromea duten gizabanakoek, bakoitzak izandako banakako bizi-esperientziek moldatutako berariazko nortasuna dutela (síndrome hori ez duen jendearekin gertatzen den bezalaxe).

**Palabras clave:** Asperger, Hezkuntza, Aniztasuna, Dibertsitatea.

**Title:** Asperger: awareness session.

## Abstract

Asperger Syndrome (AS) is a neurobiological disorder on the higher-functioning end of the autism spectrum. An individual's symptoms can range from mild to severe. While sharing many of the same characteristics as other Autism Spectrum Disorders (ASD's) including Pervasive Developmental Disorder – Not Otherwise Specified (PDD-NOS) and High-Functioning Autism (HFA), AS has been recognized as a distinct medical diagnosis in Europe for almost 60 years, but has only been included in the U.S. medical diagnostic manual since 1994 ("Asperger Disorder" in the DSM-IV).

**Keywords:** Asperger, Education, Diversity.

Recibido 2017-12-27; Aceptado 2018-01-05; Publicado 2018-01-25; Código PD: 091085

Sentsibilizazio-saioa prestatu baino lehen, denbora gehiago pasatu nahi nuen Markelekin berarekin, Aspergerra duen ikaslearekin alegia, bere ikaskideekin eta irakasleekin. Horiekin batera, egunero berarekin duen laguntzaile batekin egotea ere lortu nuen, Ainararekin hain zuzen. Eta egoera, hots, zailtasunak eta indarguneak aztertu ondoren, ohartu nintzen Markelen zailtasunik larriena gizarte harremanei dagokiena dela. Orain, gelan bertan errespetatu egiten badute ere, Markelek ez du bizi osoa gela honetako kideekin emango. Beraz, bere **irakasleak diren guztientzako sentsibilizazio saio** bat prestatzea erabaki nuen, askotan, ez baitugu kontuan hartzen, irakasleok asko lagun dezakegula mota honetako egoeretan.

Hona hemen **saioaren ezaugarri nagusiak**:

**A. Nori zuzendua:** Markelen irakasleei.

**B. Helburua:** irakasleoi ikasle mota hauek gizarte harremanetan dituzten zailtasunei aurre egiteko bidea erakutsi.

**C. Edukia: 5 puntuz osatutako sentsibilizazio-saioa:**

1. Parte-hartzea eta lagunak egitea.
2. Taldeetan integratzea.
3. Gainontzekoek adierazitakoa ulertzea.
4. Zer egin lagunak galtzean?
5. Zer egin etenaldiak saihesteko?

**D. Denboralizazioa:** 2 orduko sentsibilizazio-saioa.

**E. Erabilitako bibliografia:** saioaren amaieran zehaztua.

## Gizarte harremanak lantzeko sentsibilizazio-saioa

Ohikoena izaten da Asperger sindromea duten pertsonak lagunak egin nahi izatea, hots, besteekin harremanak eduki nahi izatea. Baina besteok intuizioz ikasten dugun hori haientzat oso zaila izaten da, tresnak falta zaizkie-eta. Gainera, inguru ere aldatuz doa eta honek ez die mesederik egiten. Hori dela eta, erraminta haiek ikasteko programak daude. Haien bidez errazagoa izango da mekanismo horiek ulertzea eta apurka-apurka martxan jartzea.

### 1. PARTE-HARTZEA ETA LAGUNAK EGITEA

Puntu honetan Asperger sindromea duten pertsonen parte hartzean eta lagunak egiterako orduan izan ditzaketen arazoei aurre egiten laguntzeko estrategia batzuk planteatzen ditugu:

- Arauak eta ohiturak erakutsi: guk intuizioz ikasten ditugun ohitura eta arauak Aspergera duten pertsonen irakatsi egin behar zaie: agur egitea, txandak errespetatzea, elkarrizketa amaitzea eta entzuleak interesa duen antzematea.
- Elkarrizketa batean gai bat noiz eta nola atera erakutsi: gai bati buruz behin eta berriz hitz egiten badu, mugak jarri ditzakegu, elkarrizketan noiz eta nola atera irakatsi (senale baten bidez, hitz efo esaldi bat eranili daiteke...).
- Elkarrizketa-eredu arruntzak landu eta akatsak zuzendu: honela arau eta estrategia zehatzak ikasi ahal izango ditu. *The social use of Language* [Hizkuntzaren Gizarte erabilera] (Rinaldi, NFER) lanean zehazten den esparruan erabilgarri izan daiteke.
- Haurrak, Asperger Sindromea daukan pertsonengana hurbiltzera animatu eskolan planteatutako jarduerak egituratuen bitartez: lagunaren artean tolerantzia jarrera eta Asperger Sindromea daukan pertsonaren portaera ulertarazten ahaleginduko gara.
- Haur txikiak antolatutako jolasak planteatu: gizarte mailako kontaktua areagotzen da eta egitura bat eskeintzen zaio.
- Gainontzeko ikaskideekin harremanetarako denbora ez egituratua murriztu: segurtasun gehiago daukate egituratuta dagoen jarduerak batean.

Honekin lotuta, "Características centrales del alumno con SA" artikuluan, arau sinpleak dituzten jolasak planteatu diezaiokegu (besteei ea jolastu ahal duen galdetu, txandak errespetatu...).

- Gizarte mailan gero eta konplexuagoak diren jolasetan parte hartzera animatu.
- Talde ekintzetan erresistentzia azalazten duenean gustokoak diren jolasak proposatu.
- Jolas orduan aukera desberdinak eman Asperger Sindromea duen ikasleari eta bere borondatea errespetatu.

Testu berdinean beste arazo bat planteazen dute: bakarrik hitz egitearena. Batzuetan Asperger Sindromea duen sormena erabiltzen dute ingurutik urruntzeko. Askotan ozenean jarduten dira eta honek burla eragiten dute besteekin artean.

Jarrera mota hauek ondoko jarrera zerrendarekin erregulatu daiteke:

Istorioak asma ditzaket...	Ezin dut istoriorik asmatu...
<ul style="list-style-type: none"> <li>• Patioan bakarrik banago eta baxu hitz egiten badut.</li> <li>• Nire logelan nagoenean.</li> <li>• Norbaitek entzun nahi dituenean.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>• Beste ume batzuekin baldin banago.</li> <li>• Bazkaltzen bagaude.</li> <li>• Ondoan jendea badago eta ez badiet galdetu entzutea nahi dutenentz.</li> </ul>

Ondorengo artikuluan, “Estrategias educativas para orientar las necesidades educativas de los estudiantes con síndrome de asperger en aulas ordinarias” *Electronic Journal os Reasearch Educational Psychologyn* (EJREP) Baron-Cohenek egindako ikerketa batean eskola mailan eskuhartze printzipio batzuk ere finkatu zituzten. Adimenaren teoriaren barruan kokatzen ditu gizarte harremani buruzko zailtasun eta estrategia desberdinak (aurretik aipatutakoen antzeko estrategiak eta arazoak dira).

Halaber, artikulua honetan inguru sozilaren aipamenak egiten dituzte. Horien artean ondorengoak:

- Asperger Sindromea daukaten ikasleak ezin ditugu jolasten behartu behartu, baina nola jolas dezaketen proposamenak egin diezaiekegu.
- Pertsona hauek taldeko jarduerak egiteko orduan daukaten antsietate maila kontuan hartu behar dugu. Haien espazio propioa izaten lagundu diezaiekegu.

Bestalde, bullyingari buruz ere ekarpenak egiten dituzte, garrantzitsua iruditu zait bullying-a ekiditeko ematen dituzten estrategiak aipatzea.

Beraz, Asperger sindromea duen pertsonari buruzko aspektu positiboak eta jarrera ona adierazten dituzten ekintzak goraiapatuko ditugu. Horrez gain, familiarekin komunikazioa mantentzea ere beharrezkoa da.

Aspektu hauek kontutan izanda, gure eskuhartzeak ondorengo aspektuak landu beharko lituzke (Cumme, Leach eta Stevenson, 2000; Winter, 2005; Atwood, 2009):

- Eskolako pertsonalak ezagutu beharko luke ikasle hauek dituzten gizarte-zailtasunak.
- Bullying-a prebenitzeko ikastetxean lan egin.
- Ikasleari jarrera desegokien aurrean nola jokatu erakutsi.
- Ziurtatu norengana Joan behar den badakiela gaizki sentitzen denean.
- Txoko lasai bat prestatu antsietatea izaten duenerako.
- Gelakideak aztertu eta taldekide aproposak aukeratu.
- Istorioak landu (Carol Grey adibidez).

## 2. TALDEETAN INTEGRATZEA

Askotan bakarrik ibiltzen dira, hainbat egoeratan zaila egiten zaielako nola erlazionatu:

- Egituraketa maila baxua duten momentuak oso estresagarriak izan daitezke haientzat, hala nola, jolas garaiak eta bazkalordua.
- Jolas garaietako arau malguak ulertzeko zailtasunak dituzte.
- Erlazionatzeko kontuan hartu beharreko alderdi ezberdinak gainditzea zailegia denez, nahiago dute askotan kontaktua ekiditea.
- Kontaktua saihestezina bada, arau zorrotzak ezartzen dituzte elkarreragina kontrolatzeko.
- Kontaktua saihesteak baztertze arazoak ekar ditzake eta asperger nahastea duten haurrak bereziki ahulak dira txantxa edo gehiegikerien aurrean.
- Antolamendu maila baxua duten taldeetan lan egitea oso zaila egiten zaie, baita ondo ezagutzen ez duten jardueretan ekarpenak egitea ere.

Hona hemen, egoera hauetan, erabili daitezkeen hainbat estrategia asperger nahastea duen haurra taldean ahalik eta era hoberenean integratzeko:

- Giro egonkorra eta aldaketarik gabekoa ziurtatu, eman daitezkeen aldaketak denborarekin aurre ikusiz.

- Jolas garaietan: egitura maila altua duten jolasak antolatu, gutxinaka, kontaktu sozial handiagoa duten egoerak erabiliz. Besteen ekintzak ikustera animatu eta gustatzen zaizkien ekintzak egitera erakarri.
- Jangelan: erreferentzi bisual argi bat izan, ziurtasuna ematen diena hain estresagarriak izan daitezkeen momentu horietan.
- Bere ikaskideek egoera ezagutu dezatela, horrela erlazioak era normalizatuago eta toleranteago batean emango direlako.
- Ekintzak egiterako orduan, pausoz pauso bideratu, lehenik hurbiltasun fisikoari garrantzia emanaz, gero lankidetzaz sustatzeko (egituraketa maila altua duten ekintzak erabiliz). Ondorengo ere kontuan izan behar da: taldean lan egitean, iskinetan jartzea eta ez erdian, ondoan baino nahiago izan dezakeela diagonalean izatea ikaskideak...
- Kontuan izan behar dugu, ikasle batzuek nahiago izan dezaketela bakarrik lan egitea edo lagunik ez egitea eta hori oso errespetagarria dela.

### 3. GAINONTZEKOEK ADIERAZITAKOIA ULERTZEA

Solaskidearen mezua ulertzeko zenbait zailtasun dituzte, mezuari laguntzen dioten kanpoko eragileengatik:

1. Gorputzaren mugimenduak edo espresioak.
2. Pertsonen sentimenduak (haserrea, ironia, txantxa).
3. Esanahi bikoitzak.
4. Enpatia gutxi (ez dakite bestearen azalean jartzen).

Horri guztiari aurre egiteko arau zorrotzak ezartzen dizkio bere buruari. Hauexek dira guk erabil ditzakegun hainbat estrategia:

1. Modu argian hitz egin, ahal dela keinurik gabe.
2. Mezua ahalik eta zehatzen izan.
3. Lasaitasun handiz hitz egin.
4. Tonua ere egokia izan behar da, ozenegia bada ez zaie mezua helduko.
5. Egoera batzuetan informazio osagarria emango diogu besteen egoera edo tonua ulertzeko (haserrea, txantxa) eta bere jarrera nolakoa izan behar den azaltzeko.
6. Horretarako, elkarreaginezko jokoak eta jarduerak bultzatu.
7. Komenigarria da gidoi bati jarraitzea.

Komunikazio atalean agertzen diren beste estrategia batzuk ere erabilgarriak izan daitezke, adibidez:

1. Bere izena aipatzea arreta erakartzeko.
2. Grafikoak edo irudiak erabiltzea.
3. Ikasle laguntzaile bat izatea.

### 4. ZER EGIN LAGUNAK GALTZEAN?

Lagunak egiterakoan ondorengo egoeretan topa daiteke Aspergerra duen pertsona:

- Haien zailtasunez ohartzen dira eta baliteke lagunak egiteko gogo bizia edukitzea.

- Gainontzeko guztiak hitz egiten ikusten badituzte ere, baliteke gizartean garatzen den edonolako “berriketaldiekin” lotutako gako informaliak ez antzematea. Eta horrek frustrazioa dakar.
- Honelako egoerak gatazkatsukoak izan ohi dira nerabezaroan.
- Etengabe dabilta lagunak egiten, nahiz eta ez duten beti lortzen; eta jendearekin harremanetan jartzeak hainbat eskakizun dakar eta horrek guztiak estres izugarria eragiten du. Ondorioz, portaera oldarkorrek ager daitezke.
- Ez dira haien sentimenduez ohartzen (ezta gainontzekoen sentimenduez ere).

Zailtasunak badirela argi dago, baina badira horiek lantzeko edota gainditzeko estrategiak ere:

- Adi egoteko aginduko dioten barne-seinaleak antzemateko laguntza behar du, bai eta egoera gatazkatsuei aurre hartzeko ere. Haserretzen denean, edo estresatzen denean, “gidoi” bat edo zerrenda bat edukitzea lagungarri gerta dakioke (lasaitzen lagunduko dioten edo egoera jakin bat saihesten lagunduko dioten estrategiak).
- Nahitaezkoa ikaskideak egoeraren aurrean sentikortzea. Horrez gain, lagungarria izan daiteke ikaskideak “ikaskide-lankideen sisteman” integratzea, edo “Lagunen Taldeak” bezalako ikuspegi formalagoetan integratzea.
- Lagungarria izan daiteke modu erregularrean eta finkoan irakasle jakin baten laguntza jasotzea. Bizi duen historiari buruz duen ikuspegia azaltzea ere lagungarri gerta daiteke.
- Eguneroko estrategiak (sariak eta zigorrak) ez baztertzea ere oso garrantzitsua da.

## 5. ZER EGIN ETENALDIAK SAIHESTEKO?

Asperger gaixok ez dakizkete elkarrizketa bateko etenaldiak interpretatzen. Hauek dira topatzen dituzten arazoak:

1. Umeek ez dakite elkarrizketa bat antolatzen dituzten markak antzematen.
2. Umeek ez dakite noiz den momentu egokia hitza hartzeko, edo beste kide baten gaiarekin jarraitzeko.
3. Baliteke, nahiz eta txandak identifikatzen jakin, jorratzen ari den gaiarekin loturarik ez daukan gai bati buruz hitz egitea beti.

Laguntzeko modu anitzak daude; hauek dira erabilgarriak diren estrategia batzuk:

1. Gelan, objektu bat erabili (txartela, pilota...) jakin dezaten hori eskuartean daukanak hitz egin ahal izango duela bakarrik.
2. Elkarrizketan eten momentuak gertatzen direnean parte hartu ahal duela erakutsi behar zaio. Eredu moduan irratian edo telebistan solasaldi egokiak entzun eta ikusi ahal ditu.
3. Laguntza moduan seinale bat adostu daiteke berarekin, jakin dezan noiz eta nola parte hartu elkarrizketan.

Aipatutako hauez gain, beste zenbait modu daude Asperger gaixoei elkarrizketetan parte hartzeko bidea errazteko:

1. Aspergedun umeak ez badaki berari gustatzen zaion gaiari buruz noiz eta nola hitz egin, adostu daiteke taldekideei galtzea ea entzun nahi duten zer edo zer gai horri buruz.
2. Bere ingurukoei proposatu ahal zaie taldean hitz egiten daudenean gaiz oso arin ez aldatzea, hau da: zehaztasunik gabe hitz egitea ekiditzea.
3. Galdera zehatzak egitea. “zer egin nahi duzu?” galdetu beharrean, “Zinemara joan nahi duzu?” adibidez galdetzea, horrela erantzuna bai / ez izango da.
4. Behin eta berriro gai berdinari buruz hitz egiten badu, adostu daiteke berarekin zenbat alditan atera ahal izango duen gai hori.

Eta, horrela, saioari bukaera emateko, azalpen guztiak eman ondoren, suerta daitezkeen zalantzak edo zeresanak plazaratuko dira. Eta, horrela, saioa amaitutzat emango genuke.

### Bibliografía

- Thomas, G. et al. (2002). El síndrome de Asperger. Estrategias prácticas para el aula. Guía para el profesorado. Vitoria-Gasteiz: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco.
- Barrat P., Joy H., Thomas G., Whitaker P. (1998) "Children with autism and peer support group". British Journal of Especial Education, vol. 25, nº 22.
- Gray, C. (1997). "Pictures of me - introducing students with Asperger syndrome to their talents, personality and diagnosis" Communication, Winter.
- Rinaldi, W. (1992). Social Use of Language Programme. NFER, Nelson.
- Swaggart, B.L., et al (1995) "Using social stories to teach social and behavioural skills to children with autism" Focus on autistic behaviour, vol. 10, nº 1.
- Darretxe, L., Sepúlveda. (2011). Estrategias educativas para orientar las necesidades educativas de los estudiantes con Síndrome de Asperger en aulas ordinarias. Didáctica y organización escolar. Bilbao: universidad del Pais Vasco, Bilbao. Santiago: Universidad academia de humanismo cristiano.
- Zardáin, P., Trelles, G. (2009). El Síndrome de Asperger. Asturias: Asociación Asperger.
- Equipo Deletrea. (2004). Un acercamiento al Síndrome de Asperger: Una guía teórica y práctica (p.77-80). Valencia: Asociación Asperger España.